

FUNTSEKO BALIABIDEAK

Gure negozioa eguzki-energiarekin funtzionatzen duten kale-argiak dira. Lehenengo behar funtsezkoak baliabide fisikoekin lotzen dira. Prototipoak garatzeko tailer txiki bat, diseinu teknikorako ordenagailuak, 3D inprimagailua edo piezak fabrikatzeko ekipamendua, eta eguzki-panelak, LED moduluak, bateriak eta kontrol-plakak bezalako osagaiak behar ditugu. Horri gehitu behar diogu instalazioetara joateko ibilgailu txiki bat.

Baliabide intelektualei dagokienez, negozioaren benetako muina hemen dago. Energia berriztagarriei buruzko ezagutza teknikoa, farolen diseinu propioak eta planoak. Era berean, instalazio eta mantentze-prozedura zehatzak behar dira; protokolorik gabe, ez dago fidagarritasunik eta, hortaz, ez dago bezero fidagarririk.

Giza baliabidekin lotuta ingeniari bat behar dugu sistemaren efizientzia bermatzeko, diseinatzaile industrial bat egitura optimizatzeko ere behar dugu, eta instalazio zein mantentze-lanetarako teknikariak eguneroko errealitatea kudeatzeko jendea behar dugu. Horri gehitzen zaio bezeroekin harremanak kudeatuko dituen pertsona bat, eta proiektuaren antolaketa eta erritmoa mantentzeko zainduko duen arduraduna.

Azkenik, finantza-baliabideak dira guztia martxan jarriko dutenak. Hasierako inbertsioa beharrezkoa da materialak, prototipoak eta lehen ekoizpen-seriea egiteko; laguntzak edo diru-laguntzak eskuratzeak ere lagunduko digu, baita bezeroen aurrerakinak edo kanpoko finantzaketa osagarria eskuratzeak ere.